

“ELKARTASUN FONDOA”, LABURPENA

Ondoko testuak elkartasun fondoaren funtzionamendua xedatzen dituzten funtsezko irizpideak labur biltzen ditu. Testu osoa sindikatuaren egoitzetan duzu eskura.

Elkartasun Fondoaren finantziakzioa honetarako gordetzen diren afiliazioaren kuota portzentajearekin ezartzen da; egungo portzentajea %12,75ekoa da. 2017rako kuota, 12,26 euro/hilean da. Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LaGS) baino gutxiagoko soldatentzako kuota murriztuak zenbateko bera du, baina hiru hilez behingoz. Hurrengo urteetan, aurreko urteko KPIren portzentajea igoko da kuota.

Elkartasun Fondoaren prestazioak jasotzeko eskubidea izateko hiru urtez izan behar da afiliatuta. Prestazioek unean uneko LaGS izango dute erreferentzia. Urteko LaGS zati 360 izango da eguneko prestazioa; 2017ko urtarrilekoa 21,04 euro/egunean izango da. Grebaren seigarren egunetik aurrera izango da prestaziorako eskubidea. Aldizkako grebetan edo lan-etean partzialetan, greba egunak edo lanaldi egunen batuketa egingo da hileko konputuan, prestaziorako eskubidea izateko behar diren bost egunak osatu ahal izateko.

Lanaldi partzialeko kontratuak dituzten afiliatuei, kontratu hauek edo hauen batuketa egun osokoak balira hartuko dira Fondoaren prestaziorako. Jasotako soldaten eta laguntzen zenbatekoak ezingo dira izan hileko soldata garbiaren baino handiagoak. “Erresistentzia kutxa unitarioak” ematen diren kasuetan, hauetatik eta Elkartasun Fondoatik jasotako zenbatekoa ezingo da LaGS baino handiago izan. Elkartasun Fondoaren ordainketak era pertsonalizatuan emango dira hamabost egunez behin greba egiten den lehen hilearen azken egunetik aurrera.

